

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko irailaren 18a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Bera • Julio Caro Barojari omenaldia eginen diote bihar.

Txari Eleta • «Irrati euskaldunak euskara indartuko luke Ultzamaldean».



• GURELUR

Arrainen heriotzak Nafarroako ibaietan

Nafarroako ibaietan, beste guzietan bezala, isurketa kutsagarriek eraginiko arrain hiltzeak maiz gertatu dira azken urteotan, tamalez. Baina aurtengoek sekulako oihartzuna izan dute hedabideetan eta herritarren ahotan. Gurelur talde ekologistak arrain hilen bilketan eta zenbaketan parte hartu izanak badu zerikusirik horrekin.

Lizarra • Antzinako Musika Aste gorena

Britainia Handiko, Italiako eta Espainiako sei talde entzun ahal izan dira

Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriak, urtez urte, tarte berezi bat eskaintzen dio antzinako musikari. Aurtengoa XIX. aldian izan da, eta adituen aburuz gorena ere bai.

IRAGAN ASTE OSOAN, ANTZINAKO garaietan ohikoa zen musika entzun ahal izan da San Migel elizan. Barnean sartu eta biola, arrabita, biolontxello, txilibita, laute eta abarren doinuek mendeetan atzera eramane dituzte entzuleak. Britainia Handiko, Italiako eta Espainiako sei talde aritu dira kantu-kantari aurtengo musika astean, hirian ospatu den XIX. aldian hain zuzen ere. Aurtun 200 pertsona inguru bildu da batez beste kontzertu bakoitzean. Halaber, kontzertuen kalitatea hobetzen ari dela zehaztu dute antolatzaileek, eta aurtengoa edizio gorena izan dela ere erran dute: kalitateak eta harrerak neurri berean egiten dute gorantz. Aurtun kontzertu guztiek bi ordu inguru iraun dute, eta guztietan musikariek berriro igo behar izan dute agertoki gainera, txalo beroengatik.



Urtero legez, antzinako musikaren soinuak Lizarran jabetu ziren astebezez. ARTXIBOA

I Fagiolini taldeak eman zion hasiera aurtengo Antzinako Musika Asteari. Berpizkundeko doinu eta musika *repertorium* zabala eta oparoa jo zuen Britainia Handiko talde honek, hots, XV. eta XVI. mendeetako ahaireak. Taldea bi sopranoak, bi kontratenorek, tenore batek eta bi baritonok osatzen dute. Hurrengo egunean, herrialde bereko Concordia taldeak John Taverner, William Lawes, Elway Bevin eta Henry Purcellen lanak eskaini zituen kontzertu bikain batean. Biola da laukote honen oinarriko musika tresna, eta Rachell Elliot sopranoaren laguntza dute.

Ostegunean Christopher Wilson —lautea— eta Sophie Yatesek —klabea— zutik jarri zuten San Migel elizan bildutako jendea. Barroko garaiko musika jo zuten; bertzeak bertze, Anthony Holborne, Francis Cutting eta Adrien Le Roy musikarien piezak. Espainiako talde bakarrak ere, Al Ayre Española alegia, barrokoko ahaireak interpretatu zituen, eta agerian jarri zuten XVII. eta XVIII. mendeetako musika ondarea oso aberatsa dela. Talde hau 1988. urtean sortu zen, Eduardo Lopez Banzoren zuzendaritzapean, eta jadanik nazioarteko oniritzia jaso du.

Azkenik, asteburuan, Vaghi Conconti eta Il Giardino Armonico taldeak aritu ziren. Azken horrek Italiako XVI. eta XVII. mendeetako musika jotzen du eta, bereziki, Antonio Vivaldik konposatutako piezak. Taldearen zuzendaria Giovanni Antonini da.

Antzinako Musika Astea Principe de Viana erakundeak antolatzen du eta The British Councilen dirulaguntza jasotzen du. Lizarrako kontzertuak duela 29 urte hasi ziren, eta, bi urteko etenaldi bat izan bazen ere, 1987tik aurrera urtero egin dira.

→ Kristina Berasain

Sakana

Presoen aldeko mendi martxa izanen da bihar

AMINISTIAREN BIDEAN GAZTE IN-darraz euskal presoak Euskal Herrira lelopean, mendi martxa egingo da bihar. Lizarraldeko eta Sakanako hainbat gazte erakundek antolatutako da mendi martxa goizeko 9:30etan: bat Lizarrako plazatik eta bestea Etxarri-Aranazkotik. Bi zutabeek bat egingen dute Lizarragako San Adrian ermitan, hamabiak aldera, eta han txalaparta, aurrekua eta oroigarri baten bidez euskal presoak omenduko dituzte. Lizarragako San Adrianen bazkaldu ondoren, Lizarran izanen dute eguneko azken ekitaldia. Kontzentrazio batekin emanen diote amaiera egunari.

Lizarraldea eta Sakanako gate taldeek, mendi martxa honen eta aurrerantzean egingen dituzten mobilizazioen bidez, euskal presoek eta euren senideek presoak Euskal Herriratzearan alde gizarteari egindako deialdiarekin bat egiten dutela adierazi nahi dute. Ildo berean, sakabanaketa bukatzeko premia larriaz jabeturik, hori lortu arte lanean jarraitzeko konpromezua hartu dutela jakinarazi dute ekimen hau aurrera daramaten gazte taldeek.

Ekimen honekin, gaur egun sakabanaketa politika onartzen eta defendatzen dutenak salatu ere egin nahi dituzte, euskal gizartearen gehiengoak aldarrikapen honen aldeko adostasuna adierazi duenean.

→ Amaia Mundinano

denbora pasa

XAMAR



Lehengo egunean gauren herria erre zeneko ehungarren urte muga ospatu ginduen, EGUNKARIAK arrot ongi informatu zuen bezala. Historian gertatu (gertatzen) direnen aintzinean jendeak berehalako ikusmolde sinple bat egiten du eta zaila izaten da, normalean, aldaraztea.

Aipatu gertakariari buruz hedatua da izigarritzko laguntza heldu zela eta elkartasun paregabea, eredu garria, izan zela deus gabe gelditu lauhun goiti pertsonendako. Hala, irudi horren arabera, suteak iraun zueno guziek laguntzeko ahaleginak egin zituzten, eta ondorean gauza bera. Errealitateak

erakusten du bertzerik ere izan zela. Etxeak erretzen eta jendea leihotatik arnesak eta espartinak karriketara botatzen ari zirelarik, ebaste lanetan eman ziren batzu. Haur anitz inguruko herrietan bildu zituztelarik, karitatea ez zen izan guziak mugitzen zituen birtutea; arrot ongi heldu baizitzairen batzuei etxeko lanetan laguntzeko. Etxeak altxatu nahiz ari zirenei zenbait auzoen ohiko herria ez zitzairen ere falta izan. Eta azkenik herrira ailegatu laguntza banatzen zuten artean izan zen ere egoeraz baliatu zena, etxe alde egiteko.

Hau guzia herriaren oroimenean dago,

halere eta hasmentan erran bezala bada ikusi nahi ez duenik. Hauek, errealitatea ezondu ondoan, erraten dute: Beraz, etzen elkartasunik izan? Bai ba, dudik gabe, handia, izigarritzkoa, gaitza benetan, Euskal Herriko txoko guztietatik igorria Bilbotik Baionaraino, Donostia eta Iruñen barna... baina egoeraz baliatu izan zirenak ere ez ziren faltatu. Egun hauetan leitzen dugu Hirugarren Munduko beharretan daudenei igorri laguntza guzia ez zaiela osorik ailegatzeko, bidean galdu egiten dela parte bat.

Istoria hauek ez dira, beraz, anitz aldatu.

Garralda

**Aezkoako
eguna, aetzen
eguna**

IRAILAREN HIRUGARREN ASTE-
buruan Aezkoa ibarrak be-
re eguna ospatuko du, Ga-
rraldan. Aurten XXI. aldia
izanen da: Nafarroan, Baz-
tandarren Biltzarren on-
doren, Ibarreko egunik za-
harrena dugu beraz. Aurten
bereziki musikariak aipatu
behar dira, gehienak he-
mengoak izanik, maila al-
tua lortu dutelako: Orreaga
koral, Garraaldako akorde-
olariak, Urtzi eta Sugandila
taldeak... Gazta txapelke-
tan ere, jakitunen ustez, in-
guruko gaztagileak gero eta
maila handiagoa erakusten
ari dira.

Ortiziralean eta larunba-
tean Irati Irratiko I. Pilota
Txapelketa jokatu da, eta
ortziral gauean bertso afa-
ria izanen da. Larunbatean,
20:00etan, Ten Pinpilin-
pausa taldeak *Sekula guzti-
rako bideak* euskarazko
obra taularatuko du eta
gauerdian gaupasa izanen
da Fumata Blanca eta Irrin-
tzina taldeekin.

Igande goizean Orreaga
koralaren kontzertua ego-
nen da, gazta lehiaketa, ar-
tisauak, Txan Handia ma-
goa, herri kirolak (Garralda
Orbalzaren kontra) eta jo-
aldunak. Eguerdian herri
bazkaria izanen da, musi-
kak lagundurik (Aurizberri-
ko txaranga, Urtzi taldea,
eta Ugutz eta Kriolina tal-
dea). Arratsaldean Otsagiko
dantzariak arituko dira,
kontzertua izanen da Su-
gandila taldearekin eta
dantzaldia Joselu Anaiak
taldearekin. Egunean zehar
karriketan musika izanen
da Garraaldako akordeoila-
riekin eta Aurizberriko txar-
rangarekin.

→ Jose Etxegoien

Bera • Barojatarren omenez, 98a gogoan


Julio Caro Barojari omenaldia egingen zaio gaur

**Espainiako 98ko
mugimenduaren
mendeurrena dela
eta, Barojatarrak
ekarri ditu gogora
aste osoan Berako
Udalak. Gaur Julio
Caro Baroja
omenduko dute.**

ASTE HONETAN GUZIAN, BAROJA-
tarrek eta 98a lelopean,
hitzaldiak izan dira Berako kul-
tur etxean. Pio Barojaren lanetan
Bidasoaren eragina eta Nafarroa-
ren lekua aztergai izan zituzten
astelehenean Miguel Sanchez-
Ostizek eta Jose Maria Romerak.
Anitz dira Pio Barojak bere elebe-
rri zein antzerkilarian Beraz,
Bidasoa aldeaz zein Euskal
Herriaz egiten dituen erreferen-
tziak. Maiz, Berako jendea bihurtu
izan zuen bere eleberrietako
protagonista, izen eta abizenekin.

Fernando Perez Ollok asteaz-
kenean Barojatarrek Iruñearekin
izan zuten lotura aztertu zuen,
eta Mercedes Fórmicak atzo Car-
men Baroja eta 98ko emakumeak
izan zituen mintzagai. Carmen
Baroja Julio Caroren ama eta Pio
eta Rikardo Barojaren arreba
izan zen. Anaiak eta semea
bezain ezaguna izan ez zen arren,
bere lanak argitaratu zituen,
bereziki poesian.

Gaur Pio Caro Barojak —Julio-
ren anaiak— bukaera eman die
hitzaldiei, Barojatarren aurkako
esamesak bilduz. Pio Caro Baroja



Berako herriak omenaldi berria egingen dio bihar Julio Caro Barojari,
herriko seme kuttunari.

• ARTXIBOA

Bera eta Madril artean bizi da
egun, eta batik bat zineman zein
ikerlanetan egindako bideagatik
da ezaguna. Barojatarren sen-
diak duen azken kidea da.

Baina ekitaldirik garrantzi-
tsuena bihar izanen da. Orain bi
urte, Julio Caro Baroja hil zene-
an, seme kuttun izendatu zuen
Berako Udalak, eta orain omenal-
di beroa eskaini nahi izan diote,
berari zein bere familia osoari.
Berako herriaren izena literatura,
pintura zein bertzelako arte plas-
tiko eta zinemaren bidez zabaltze-
agatik. Aurrerantzean Berako
kultur etxeak Julio Caro Baroja
izena jasoko du (ireki zenetik
Berako kultur etxea baino ez da
izan). Izen hori jasoko duen plaka
erakutsiko da jendaurrean larun-
batean, arratsaldeko 7etan.
Ondotik, Pio Barojaren eleberrit-
an agertutako Euskal Herriko

kantuen zatiak aditu ahal izanen
dira, Julio Caro Barojak grabatu
zuen bilketa lan baten bidez.
Julio Caro Barojarekin harrema-
na izan zuten zenbait beratarren
solasaldia izanen da, bere bidez
ezagutu ahal izan zituztenak
konta ditzaten. Omenaldiari aka-
bera emateko, afari batean bildu-
ko dira nahi duten guztiak, Eus-
kalduna jatetxean.

Aste honekin batera, aitzakia
moduan, Berako berrogei bat
margolarien 74 lan bildu dituzte
Berako kultur etxean. Erakuske-
ta iragan astelehenean ireki zen
jendearentzat, eta igandea bitarte
ikusgai egonen da. Inoiz Berako
margolarien egin den erakuske-
tarik zabalena egin da, eta mar-
golari ezagunen eta hain ezagun
ez direnen lanak bildu dituzte.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Begiraleak Quebecen

Herria astekariak tarte berezia eskaini dio
azken zenbakian Donibane-Lohizuneko Be-
giraleak elkarteari, udan Quebec lurraldera
egin bidaia dela-eta. Horretaz mintzatzeko,
elkarteko buru Xabi Soubelet egin dio elkar-
riazketa **Herria**-k. «Duela bi urte, eskualde
hetan bizi den euskaldun batek gomita igorri
zaikun, Trois-Pistoles deitzen den herrian
euskal-biltoki bat estreinatu beharra zutela
eta joaiten ahalko ginenentz zenbait musi-
kari eta kantari gurekin harturik. Taldetxo
bat izan ginen beraz, Begiraleak elkartearen

izenean. Ongi etorri gaitza egin zaikuten. De-
lako biltokia estreinatu bezain laster, gure ar-
tean hartu ginuen xedea berriz ere joanen gi-
nela harat norapait bainan *begirale* guztiak,
edo segurik hoaiten ahalko zirenak oro...
eta egin dugu», dio Soubeletek **Herria**-n.

Trois-Pistolesen aurkitu euskal-biltoki-
az mintzaten da, halaber, Begiraleak elkarte-
ko burua: «Ez da Euskal-Etxe bat bezala. Eus-
kal-Etxeak, izan Parisen, Bordelen edo He-
go-Ameriketan, eginak dira euskaldunak
harat biltzeko. Trois-Pistoles herrian eta on-

do hetan, euskaldunak kasik ez da batere. Ez
aski Euskal-Etxe baten biziartzeko. Biltoki
hori da arras berezia, deitzen dute *Parca de
l'Aventure basque*. Euskaldunen ohoretan
eta orroitzapenetan muntatua nolazpait».

«Luzaz eta luzaz euskaldun arrantzaleak
ibili dira han gairi, balea ihizin zabiltzanak
bereziki. Euskaldun horiek ez dira gero han
kokatu, bainan hango jendeak ukan ditu
heiekin harreman sarkorrak. Hiru mende-
ren buruan ez dituzte oraino ahantziak eta
ez dituzte ere ahanztekoak!».



**ur dai
aren
mintzoa**

Patxi Larraburu

Katuaren apologia

Katuaren lanak ez dira txikiak.
Agenda betea izaten du. Egu-
nero goiz jeiki eta pixa eta kaka
egin ondoren etxeok esnatu
behar ditu janari eske. Gero jan
egin behar du eta askotan edan
ere edan egin behar du. Ileanen
kontua dator gero: hilabete
batean bere pisuaren adinako
ile kopurua botatzen duenez,
edateari utzi bezain laister hor-
tara dedikatu behar da sutsuki.
Orduan pasillotik gora eta
behera ikusiko duzue ileak
hemendik eta handik banatzen,
estatistikaren aurkako erloju-
peko karrera mantso batean.
Egun bakar batez lan titaniko
hori utziko balu, nagitasunez
edo eguzkipean etzanda ego-
tea nahiago duelako... akabo.
Jai. Hilabeteroko ile kopura
agian ez zen osatuko! Katuak
hori badaki eta arduraz joko-
tzen du egunero-egunero bere
bost gramoak hemendik eta
handik banatzen.

Ondotik, goizeko hamaika
t'erdia izan arren, lotara doa,
gaueko harrapalaria baita, eta
gaueko sagu, sator eta horrela-
koak ehizatzearen ardura bere
gain dagoenez, gau aldera des-
kantsatua egotea ezinbestekoa
zaiolako. Lo, lo eta lo! Jo ta
fuego ibiliko da lotan! Eguerdi
aldera zer edo zer gehiago jan,
presaka, ia-ia astirik gabe, eta,
arduratua, berriz lotara joango
da. Gau aldean esnatu, mila
buelta eman eta etxean sagu,
sator edo antzekorik ez dagoe-
la oroituko, berriz ere
seko lo geldituko da, nekeak
jota, lan eguna amaitua,
hurrengo egunera arte.

Kupidaz begiratzen diot nire
katuari. Eskuak sakelean bere
aurrean luzez gelditzen naiz
hari begira, bere loaldi etenga-
be eta arduratsua zaintzen,
arnasaldi lasai horri so, eguzki-
pean etzandako zama leuna,
maitagarria. Bere loaldiarekin
sala guztia geldiarazi egiten
du. Neu ere mantsoago mugi-
tzen saiatzen naiz. Adiskide
batek erratua nabilela esan
zidan. Ez ditudala gauzak diren
bezala ikusten. Txorritzen
hasia naizela. Katua alferra, tri-
pontzia eta pizti berekoia bes-
terik ez dela esan zidan. Are
gehiago: nire lanbideak kutsa-
tu nauela gehitu zuen. Politiko-
en koartadak asmatzeari uko
egin eta Partiduaren Prentsa-
Arduraduna izateari utzi egin
behar niola, alegia. ●

Aurtengo udan, Nafarroako gizartea behin eta berriro aztoratu du gertakari batek: arrainak samarka hil dira

5


ostirala, 1998ko irailaren 18a **Egunkaria**

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Rafael Mikoleta Zamudio 'Amuko'-z gomuta

Ez dira asko XVII. mendean hegoaldean ezagutaratzera emaniko euskal testuak, alabaina badira, berandu izanagatik ere, geure eskuetara iritsi direnak, honen lekuko Mikoletaren *Modo breve* ezaguna, 1880.ez geroz bost edizio oso pairatu dituen.



Rafael Mikoleta eta Zamudio sendi leinargitsu baten altzoan sortu zen 1611.eko azaroaren 19an Bilbon, San Antongo elizan berean Martin Arrieta batxilerrak bataiatu zuenarik. Mikoletarrak -edo Nikoletarrak, bada, bietara dugu artxibatagietako paperetan Rafaelen abizena- Begoña aldeko merkatarien alkoa genuen, XVII. menderako bederen. Letretako gizona, lizentziadun bihurtzearekin ber Bilboko elizetako benefizio laurdenen jabe egin zen 1653.erako gutxienez, bere lana ondu zuenerako, hots. Honetan, sendi tradizioari ez zion muzin egiten, osaba batek, Martin Mikoletak alegia, 1632.eko matxinadari buruzko agiria sinatu zuena. Ez zitzaion matxinatuek sortarazi anabasa oharkabea igeroko, areago, osaba gertakizunen idazkaria izanik, halarik ere ez zen berea historia orekatuagirik izanen, geure Rafael beraren amapontea zen Maria Fernandez-Anguloren senarra baitzen, izan, altxatutakoen gutzizko itu gehien, Pedro Fernandez-Kanpo hain zuzen, bestalde ere, Mejoradako lehenbiziko markisaren gurasoa izanen zena. Rafael Mikoletaren biografiak bereziki kezkatu zen Villabasko zio-kunez, gure idazlea ere hiriko kabildoaren fiskal txiki, fiskal gehien eta priorea izan zen, nahiz Altzibarrek, honakoa ziurtatzen duen oinarri dokumentalaren eza ere nabarmendu zigun; aitzitik, Altzibarrek dokumentuz bai ziurtatu ziguna zera izan zen, gure Mikoleta nahikoa odolberoia zela, eta ezizenez ezaguna zen Amuko deitu zion emakume bati egurtzeagatik espetxean izan zela. Edozein modutan, argi gera bedi Mikoleta, barrokoaren garaiko Bilbo hartan, gerriko hezurra agerian zuen abade lander, txiro eta arlothe horietakoa ez zela, eta gradu horretatik euskarazko esku-

burua agertu izana ez zela txori-kaka, euskararentzako behinik-behin. Rafaelen gramatika laburra jada aipatua dugula, dezagun edozein bizkaitarrek, neurri apalagoan nahi bada baina baita edozein euskaldunak ere, ezagutu beharreko berri-zerrenda apala. *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* 1653.ean ondu zuen Rafaellek. Argitara gabe geratu zen horratik, harik eta Fidel Fita josulagunak -berri- ere berau 1880.ean Gironako V. Dorcarenean agertu zuen arte. Hurrengo urtean Salvador Sampere i Miquelek Bartzelonako *Revista de ciencias históricas*en kaleratuko zuen harzara. Hirugarren edizioa ere berehalakoxean etorriko zen, 1897.ean hain zuzen, Edward Spencer Dogsonen eskutik eta Sevillan. Azken bi edizioak Angel Zelaietak paratuak dira, Eusko Ikaskuntzaren babesean bata, 1988.ean eta *Hizkuntza eta Literatura* sailaren 8. kaierrean, eta Abandoko Mikoleta euskaltegiak aintzinaratua bestea, 1995.ean agertua, biden artean aldaketa gutxiarekin orde. Bost edizio hauei, gainera, Azkuek *Sempererenari* eginiko ikutuak, nahiz Mitxelenaren eta Sarasolaren ekarpenak aipatu beharrekoak dira, haatik, eta Altzibarrek batera, «oraindino edizio kritiko on baten zain gaude».


Liburuaren eskuizkribuaren bidaztia ere zur eta lur uzteko modukoa agi dakiguke, bada, idaz-mendean berean Ingalaterrari buruz eraman baitzuen bertako merkatarien batek, bizkai kaletako

euskaldunekin hala edo nola hobekiro moldatzeko helburu. Eskuizkribuaren bukaeran Owen Briggs-tocke izena eta bere armarrria agertzen da grekerazko hitzokin: «ὁς οφίς καὶ περὶ τέρῃ», hau da, «sugea eta usoa legea», alabaina, badirudi Mikoletak Samuel Sainthill izeneko baten eskariari erantzunez idatzi zuela bere lana. Eskuizkribuaren azken jabea, XVII. mendean oraino, Norwich-eko Thomas Browne sir-a izan zen, harik eta beronen senidea zen Robert Harley-ek britaniar museoari eman zion arte.

Lanaren edukiaz denez bezanbatean, hasmenta du lanak deklinabide kontuekin, *Modo breve de sauer declinar los nombres vascongados*; jarraian aditzaren txanda datorrigu, *Conjugación de los verbos vascongados*; baita hiztegi galak ere, *Dictionario breve de vocablos los mas usados en vasquense propio puestos por orden alfabético*; gramatika kontuak alde batera utzirik, on Rafael *Modo de la vizcayna poesia y sus versos* izenburuko atala gaineratu zion idazkiari: «Dexando las coplas de lelo-lelori que suelen cantar las moças los días festivos, que no entran en la mas graue poesia vazcongada ordinariamente ay en nuestra lengua dos modos de versos y entrambos se componen de assonantes como los romances de la lengua castellana, y a este simil los llamamos nosotros vasquenses (...): Amoren contentuac / Estaude yrauten / Campoan lorac leguez / Dira galsayten». Azkenik, Mikoletak elkarriketaz zenbait txertatu zituen lanaren bukaeran, nonbait, Londresen 1623.ean John Minsheuk argitaratu zuen *A dictionary in spanish and english* lanean oinarri bide zutenak, Dogson berak aski argi utzi legez.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Unai, bakero, eta cowboy

Mutikotan itzailibilia naizelako edo, beti xoratu izan nau hitz honek, eta atzenaldera sekula baino usuago, artxiboetan axtarka nabilela: «*Joannes de Salaberria, vaquero, Goizueta, 1549*», «*el vaquero llamado bella de Arano, 1584*», eta abar. Baina, garai hartan barra barra erabiliko zen gurea txokoren batean galdurik harrapatzeko graziarik ez dut izandu egundaino. Beharrik, lehengo batean Joantxo Samartin eibarresak kontsolatu nauen, artikulubatekin. Arabako Jaunak 1167an Aralarko Mikel Doneari egiten dion eskeintza batean ageri omen da *Unai* hausi hitza (Unai nagusi) aurreneko. Hurrena, 1168an, Iratxeko eskuizkribu zaharretan, *García Unai*a. Gero 1229an, Nafarroako Artxibo Haundian, *Don Unai*a.

Ondotik, gure Patziku santuari buruzko dokumentuetan 1477an, *Martin Unaya*. Handik hurrena, 1596an, *Refranes y sentencias* ezagunean: *Vnayoc arri citean, gastaec aguir citean*, geroztik *unai/artzai* nahastea tarteko Isastik, Garibayk, Oihenartek, Mogekek eta bestek, mila erataria berritu duten erretraua.

Lehengoan berriz, Fontesen leitzen nuen pasarterik politena, Sarakoek Erratzukoei 1791n bidalia: «*Jaunac: Othoizten caiztuztegu abissu emalteaz çuen Valle Nobleko unaiey atencione eman dezaten aciendaric sar ez dadin herri huntaco oihan barnetan ezcuz debecua emana dugu*».

J.M.Satrustegik berak, Luzaideko arotzaren kontulibruan, aipatzen dituenak dira besteok: *Unaya Esquerria* 1880an, eta *Unayaineco condia* 1885ean. Hemen ofiziotik sortutako etxeizena ageri zaigu azkenik. Hauze da nere begiek artxiboetan usuenik ikusi dutena: *Unayarena, Unayenea, Unaine-txikia, Unaingoa, Ulhainea, Unaiñena*,... Herri askotan ageriden etxeizena; eta mereziko luke

herri guzietakoak xehero biltzeak, erdal ordezkoen parez pare; izan ere, *unai* hitzak sortzez arruntekoa, edo hutsa esanahi zuen ez baitu inork argitu oraindik, atzenaldera bigarren adiera nabarmen gailendu den arren.

Hala ere, Sabino Aranak 1897an *Deun-ixendegi euskotarra* sortzean, erdarazko Pastor izenaren ordezkotik hartu zuen *Unai*, eta geroztik udaberriko zizak bezala ugaltu da gure izendegian. Eta hauze da, niri arrotzena egiten zaidana, nola zentzu historiko, hala filologiko aldetik.

Unai kantari bukolikoaren irudia ere unibertsala dugu. Arranoak *Bortüetan* kantuak dion gisan: «*Hartzen diat ofizua: Iratiat ülhain banua / Nola betiüti biziua oihanetan khantatzekua*» (...) «*Khantore hoien egiüan ülhain nintzan borthian / Pasü-lapeko oihanian, abis hunik emalten nian*». Gure irudimeneko xirulariak, koplariak, larre-poetak datozkit gogora, edota Andima Ibiñagabeitiak, hain ederki *Unai Kantak* deituz euskaratu zituen orain bi mila urteko Virgilioren *Bukolikak*; esan ere, *boukolis* hitzak grekeraz, *unai* esan nahi baitzuen.

Lekuizenean ere utzi ditu bere arrastoak unalak: *Unangarate, Unamuno, Unibaso, Unamen-di, Unalbide*. Azkeneko hau eta (*Unalbideko ataka, Unalbideko lepoa*...) gogoangarri dira oraindik Goizuetan. Behiala Orreagatik Ainarbe aldera ekartzen omen zituzten mendibehiak negutza, eta udalchenean beren behisailak aurrean hartuta, joare kalanka eta marru, goimendietara abiatzen zirenean, hala esaten omen zuten goizueta-rrak: Unaiak joanen ziren Orreagara, baina *Unaine* hantxe gelditu zen Goizuetan (Iserri eta Yandene bitartean), eta horratx diglosiaren broma: hantxe bertan jalo eta haziko zen gero *Bakero*, Goizuetako Joxemariarik famatuena.

Eta ustez bukatua neukana artikulua, ume zahartuak bazterretik. Harrapazak horj, Pello!

Ziria

• Motxorrosolo •

Azeri moduan


Aukera probestu behar da, inoiz ere Biltzarren ordua helduko da, bidea malkartsuetatik ez gara libro. Garaian uhinak dira hizpide. Gazte baten jantzia dotorea izanik ere muga da, urratu beharrekoa, egunean egunekoak apurtu dezakeena, lorpena ez da beti horren ondorioa, baina asko zor dio. Ongi etorriak goi-mailan egin ahalegin guztiak, jokoaren errenta ez bada ere, jokatzena beharturik gaude, aurretik pilaturiko indarra tanto baliosen iragarlea.

Txari Eleta

Ultzamaldeko Esan-Erran Irratiko talde eragilekoa

«Irrati euskalduna lagungarria litzateke euskara indartzeko»

Irrati lizentzien kontzesioaren afera konpontzeke dagoelarik, Ultzama eta ondoko bailaretako udal irrati batek lizentzia eskuratu du FMko 107.9an euskaraz emititzeko. Ametza elkarteko kidea da Txari Eleta: Esan-Erran Irratiaren talde eragileko kidea.



MIKEL SAIZ

ULTZAMA, IMOTZ, BASABURUA, Lantz, Odieta eta Anueko haranetan izanen da entzungai Esan-Erran Irratia, eta negu aldera bizpahiru orduko euskarazko programazioa eskaintzen hasiko da.

■ Zer dela eta Esan-Erran izena?

Irratia inguru zabal batean entzuten ahal izanen da, eta bailara guztietan ez da euskara berdina hitz egiten. Oso zaila egin zitzaigun alde guztietan erabiltzen den hitz edo soinu bat aurkitzea. Azkenean Esan-Erran izena hautatu genuen, Basaburuan eta Imotzen esan erabiltzen dutelako eta Ultzaman, Anuen eta Lantzen erran.

■ Nolako izanen da irratia?

Euskalduna izanen da, noski. Bestetik, hemengo gaiak jorratzea nahi dugu, hemengo jendeari interesatzen zaizkion gauzak. Saiatuko gara behintzat; ikusi beharko dugu sektore ezberdinei zer interesatzen zaien.

Ez dugu irrati komertziala egin nahi, eta, horregatik, ez dugu publizitatea onartzeko asmorik. Programazioa ez dago batera finantziaturik. Oraindik ez dakigu zenbat ordu emititu behar ditugun ere. Gutxi gorabehera bi edo hiru orduz izanen dira langileak lanean. Eta nahi dugu jendeak benetan parte hartzea.

■ Nola dago euskararen egoera irratia hartuko duen inguruan?

Herrien arabera da hori, baina orokorrean nahiko gaizki dago. Lantz, Anue eta Odieta oso gaizki dago euskara. Heldu euskaldun gutxi gelditzen dira. Orain umeak ikastolara bidal-

tzen dituzte gehienek, baina Anuen ezta hori ere. Basaburuko eta Imotzeko egoera hobea da. Saiatzen ari gara eskualde honetan euskara indartzeko, baina lan ederra dago. Bide horretan, irrati euskaldun bat oso lagungarria litzateke, baita beharrezkoa ere. Izan ere, aukera gutxi dago hemen euskaraz egiteko eta euskaraz bizi ahal izateko.

■ Nolako izan da irratia sortzeko prozesua?

Duela bi urte Ametza elkarteak sortu zen Ultzamaldean euskara

bultzatzearen.

Horren barnean lan talde bat eratu zen proposamenak egin eta aurrera eramateko. Proposamen horietako bat euskarazko irratia sortzea zen. Proiektu bat egin genuen eta eskualdeko udal guztietan aurkeztu genuen, dirulaguntza eskaerarekin batera. Udal guztiek onartu zuten, Ultzama-koan izan ezik. Euskaraz eta

erdaraz egiteko erran ziguten, baina guk argi genuen euskaraz egin nahi genuela. Bestalde, diru kopururik handiena Ultzama-ko Udalari eskatu genion. Erran beharrezkoa da, era berean, proiektua onartu zuten udal guztiek ez zutela diru laguntzarena onartu, dirurik ez zutelako edo. Udalen onespina jaso ondoren Batzorde mistoa osatu genuen, proiektua onartu zuteneko udal bakoitzeko lagun batekin eta Ametza elkarteko kideekin. Batzorde horrek irratia inguruko guztia eztabaibatu eta erabakitzen du.

■ Zer diru iturri duzue?

Proiektua onartu zuten udalen

laguntza dugu. Eskatua dugu dirulaguntza Nafarroako Gobernu-ko Hizkuntz Politikan ere, eta Cederna-Garalurrek ere eman behar digu laguntza bat. 130 bazkideen diruarekin ere kontatzen dugu eta uste dugu jende gehiago egingen dela bazkide. Horretaz gain, gaupasak antolatu eta kamixetak saltzen aritzen gara. Denetara, 4 milioi pezetako aurrekontua du proiektuak, baina oraindik ez dugu diru nahikoa obrak eta tresneria ordaintzeko.

■ Nola lortu zeputen lizentzia?

Argitu beharrezkoa da guk eskuratu dugunak ez duela zerikusirik Gobernuak ematen dituenekin. Basaburuko Udalak udal irrati baterako lizentzia eskatu zuen. Eman zioten eta berak egin zuen kontzesioa. Ametza elkarteak izan zen deialdira aurkeztu zen bakarra, eskaintza ez baitzen oso ona, eta lizentzia jaso zuen. Basaburuko Udalak ere Jauntsaratsen dagoen udaletzeko sabaia utzi digu estudioa eraikitzeko. Orain obratan ari gara. Ekaineap hasi ziren eta urrirako edo azarorako bukatzea espero dugu. Tresneria guztia ere azarorako izatea espero dugu.

■ Horretaz landa, zer falta zaizue irratia proiektua osatzeko?

Langileak aurkitzea falta zaigu. Bi langile hartuko ditugu. Hauta-

sos laia

Txari Eleta duela 24 urte jaio zen Olaguen, baina Irazotzen bizi da. Sukaldaritza ikasketak egin zituen eta AEK-ko irakaslea da Ultzaman, Anuen eta Lantzen. Sortu zenetik dago Ametza elkarteak, honen barruan sorturiko lan taldean, eta horren ondorioz sortu zen Batzorde mistoan.

Euskararen egoera eta euskara bera ere ezberdina da herrien arabera. Eleta euskaldunberria da, baina bertako euskalkiak ezagutzen ditu. Berak erraten duenez, zerbait asmatu beharko dute herri guztietako euskarak irratian azal daitezen. Euskara batuaren konponbidea ez da erabat ona, zaharrenek onartzen ez dutelako: «Izan ere, hemengo jendea ez da sobera irekia».

Esan-Erran Irratiak FMko 107.9an emitituko du, egunean bizpahiru orduz eta euskaraz, Ultzaman eta inguruko haranetan. «Eskualde zabala da baina biztanle gutxi ditu», dio Eletak. Jaitziera demografiko izugarria izan du inguru horrek mende honetan. Hori eragozteko, ahalik eta zerbitzu gehien eskaini behar zaizkie biztanleei, Ametza elkartekoen ustez, eta irratia izan daiteke haietako bat.

gaiek proiektu bat aurkeztu beharko dute eta elkarriketa egingen zaie. Bi langile horiek urrian Xorroxin irratian praktikak egitea da gure nahia, eta azaroan edo abenduan emititzen hastea. Baloratuko dugu euskaldun osoa izatea eta, batez ere, hemengo izatea. Azken gauza horri garrantzi handia ematen diot nik. Hemengo gauzetan inplikaturik egotea, Ametza elkartearekin koordinatzea eta dinamikoa izatea ere baloratuko dugu. Langileak hautatzeko epaimahaian izanen dira

Batzorde mistoaren lehendakaria, euskara teknikaria, orientatzaile profesional bat, irratiko profesional bat eta lan taldeko bi partaide. Ni ez naiz han egonen, beste aldean baizik. Langile postu horiek eskuratzeko lagun batekin batera aurkeztuko bainaiz. Horregatik ez naiz langileen hautaketa prozesuan sartu. Hasieratik nago proiektu honetan eta irratian jarraitzea gustatuko litzaidake.

—> Asier Azpilikueta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Amets bat izan dut

LUTHER KINGEK BEZALA NIK ERE amets bat izan dut, itzal eza-gun batzuk saiatu dira nire loa era-gozen, baina zorionez ez dute lortu eta hamabiak arte egin ahal izan dut lo. Altxatu eta hozgailuan esnerik ez zegoenez ezin izan dut gosaldi.

Ametsa zehaztu ezin dudana etorki-zun batean gertatzen zen, eta lekua-ren inguruan ere zalantzak ditut, Ciberiruñea edo Ciberlogroño izan zite-keen. Eszenatokia ordea garbi ager-zen zitzaidan nire zurrunkin lainoen artetik: gartzela bat, edo gartzelaren ataria. Eta ametsaren protagonistak ezagunak oso, presidente ohia eta ubidegile ohia; haiekin jende andana, atarian bilduta, hau nahaspiloa! pan-kartak, oihiak, Internazionalaren musika (bakan batzuek abesten zi-tuzten zati batzuk, ahapeka). Iskan-bilarekin esnatzeko zorian egon naiz. Oraindik goizeko hamarrak ziren...

Jendearen artean txapak banatzen zituzten: «Denok gara G.U. eta A.A.»; banatu baino, saltzen zituzten. Ber-rogei duro, eta bat baino gehiago or-daintzera joan denean kartera galdu-ta zuela konturatu da; ezer esan gabe pentsakor geratu dira. Pankarta guz-tietan ukabil bat larrosa hits bat txi-kitzen mota guztietako leloekin: «Etxean nahi ditugu», «Dispersiorik ez», «Diputazioako presoak Diputazio-ra» eta abar. Ez nago guztiz ziur baina ametsaren zuzendariak egin duen travelling batean amnistia eskatzen zuen pankarta bat zegoela iruditu zait, bitxia da 77an sinatuta zego-e-la iruditu zaidala. Ondoren, Madrile-tik pertsonaia inportante bat etorri da eta XXI. mendearen atariko Robin Hood aritu da. Bere izena zein den ez du garrantzirik, hortaz hemendik aurrera X jauna esango diogu...

Aspertuta, ametsaren kanala alda-tu dut, baina Luther Kingen moduan nire ametsa ezagutzera eman behar nuela erabaki dut.

KONTZERTUAK

- Aranguren: Aska taldearen kontzertua izanen da gaur gaueko hamabietatik aitzina.
- Iruñea: Alaitz eta Maiderrek kontzertua emanen dute gaur Nabarrerria plazan, 00:30etan.
- Iruñea: Bihar, goizeko ha-marrak inguru. Verbabuena jazz taldea egonen da San Jose plazan antolatuko duten Arkakuso Azokan.
- Ettxalar: La familia no recibe taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 22:30etan, herriko ostatuan.
- Iruñea: Igandean Vans War-ped Tour kontzertua izanen da zezenplazan, taldeokin: Bad Religion, The Specials, CIV, Lagwagon, Unwritten Law, The Smooths, Cherry Poppin Daddies, Die Toten Hosen, Pitschifter, MXPX, Def Con Dos, A.N.I.M.A.L., No use for a name, Raimun-dos, Redshif eta H-Blockx.
- Iruñea: Leihotikan eta Fluor 5 taldeak Nabarrerria plazan ariko dira igandean 21:30etatik aitzina.

BERTSOLARIAK

- Ituren: Bihar, joaldunen eguna dela-eta, Jesus Mari Irazu eta Xabier Amuriza ari-ko dira egun osoz.
- Elgorriaga: Etzi bertso baz-karia izanen da Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin.
- Arruiz: Bertso afaria izanen da astelehenean Larraungo herri tipi honetako elkarte-an, Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsola-riekin.

ANTZERKIA

- Iruñea: Xautondo taldeak Kilikizarra antzezlan taula-ratuko du bihar, Burgoen plazan, 17:30etatik aitzina.

IKASTAROAK

- Atarrabia: Kultura eta Gaz-teria Zerbitzuak haurrenda-ko tailerrak antolatu ditu euskaraz zein gaztelaniaz. Espresio plastikoko, pintura-ko eta herri dantzetako taile-rretan izena emateko epea irailaren 25ean bukatzen da.

- Iruñea: Andreak, emakume-aren harrerarako zentroak, ikastaro hauek antolatu ditu datorren ikasturterako: autoestimua, giza gaitasu-nak, norberaren handitzea, ingelesa, yoga, kiromasajea, makilaje kreatzailea eta etxe-ko lanak. Informazio gehiago 948 133310 telefonoan.

BESTELAKOAK

- Iruñea: Ostiraletik igandea arte, Iruñeko Nabarrerria auzoak San Fermin Txikiko bestak ospatuko ditu. Larun-batean 13:00etan Agureen-dako Lasterketa egingen dute, eta Iruñeko diganteak eta kilikiak ibiliko dira.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Ezin esan
zer den
makurrago,
Jamaikan
kokodriloak
harrapatzea
ala Iruñeko
errepideak
zebra-
bideetatik
zeharkatzea.



PAUSOGAIZTO
Kokodriloak
harrapatzeko
balio du.
Zebra-
bideetarako,
batek daki.